



# Gida azkarra

**Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



CJB1FK0ALAGA














[www.sar-tick.com](http://www.sar-tick.com)

Espainiako estatuan aplikatu beharreko 2,0 W/kg-ko SAR muga betetzen du produktu honek. Erabiltzailearen eskuliburu honetako Irrati-maiztasuneko uhinak atalean daude gehienezko SAR balio espezifikoak. Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu daramazunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 15 mm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioa igor dezakeela, bai eta Interneten nabigatzen ari ez bazara ere.

## Erabiltzeko oharrak

Komeni da kapitulu hau arretaz irakurtzea gailua erabili aurretik. Fabrikatzaileak ez du bere gain hartuko behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzukizunik.

	Ez piztu gailua haren erabilera debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo kalterik eragin dezake.
	Bete ospitale eta osasun-etxeetako arauak. Itzali gailua tresna medikoetatik hurbil bazaude.
	Itzali gailua hegazkinean bazabiltza. Interferentziak eragin ditzake gailuak hegazkinaren kontrol-seinaleetan.

	<p>Itzali gailua doikuntza-maila handiko gailuetatik hurbil bazaude. Gailu horien funtzionamenduari eragin diezaioke zure gailuak.</p>
	<p>Ez saiatu telefonoa edo haren osagarriak desmuntatzen. Langile gaituek bakarrik konpon dezakete gailua.</p>
	<p>Ez jarri ez gailua ez haren osagarriak eremu elektromagnetiko handiko lekuetan.</p>
	<p>Ez jarri gailutik gertu biltegitratze-ekipo magnetikorik. Ekipoetan gordetako informazioa ezabatu egin dezake gailuak sortzen duen erradiazioak.</p>
	<p>Ez jasanarazi tenperatura handirik gailuari, eta ez erabili gas sukoiarik dagoen lekuetan; gasolindegietan, adibidez.</p>
	<p>Haurren eskueratik urrun gorde gailua eta haren osagarriak. Ez utzi hurrei gailua erabiltzen alde zurretik horretarako jarraibiderik eman ez bazaie.</p>
	<p>Leherketa-arriskua, saihesteko, onartutako bateriak eta kargagailuak bakarrik erabili.</p>
	<p>Irakurri gailuaren erabilerari buruzko legedia eta araudiak. Errespetatu hirugarren batzuen pribatutasuna eta eskubide legalak gailua erabiltzen ari zarela.</p>

Gomendatzen da tenperatura  $-10^{\circ}\text{C}$  eta  $50^{\circ}\text{C}$  artekoa eta hezetasuna % 10 eta % 90 artekoa den lekuetan bakarrik erabiltzea gailua.

# KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure gailurako zehaztutako kargagailuek informazio-tratamendurako eta bulegoko ekipoetarako segurtasun-arauak betetzen dituzte. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko Direktiba ere betetzen dute.

Zehaztapan elektriko ugari aplika daitezkeenez, gerta daiteke herrialde bateko kargagailu batek beste herrialde batean ez funtzionatzea. Diseinatu ziren helbururako soilik erabili behar dira.

## 1. Deskribapen orokorra

LinkZone haririk gabeko bideratzaile eramangarriak aukera ematen du WiFi txertatuta duen edozein gailurekin 4G aise partekatzeke.

### 1.1 Paketearen edukia

 <p>LinkZone</p>	 <p>USB kablea</p>	 <p>Bizkor hasteko gida</p>
 <p>edo</p> <p>Kargagailua*</p>		
<p>* Herrialdea zein den, desberdina izan daiteke kargagailu-mota</p>		

## 1.2 Aplikazioa



PC



LinkZone




Tabletak eta iPad-ak



Smartphonea

## 1.3 Gailuaren deskribapen orokorra



Zenbakia	Deskribapena
①	Pizteko/itzaltzeko tekla
②	WPS tekla
③	LED argia
④	Kargagailuaren/microUSBren konektorea

Honela erabili gailuaren bi botoiak:

Botoia	Deskribapena
① Pizteko tekla	Hiru segundoz eduki sakatuta gailua pizteko/ itzaltzeko.
	Une batez eduki sakatuta LEDa itzaltzeko.
	Hamar segundoz eduki sakatuta gailua berrabiarazteko.
② WPS	Hiru segundoz eduki sakatuta WPS botoia, harik eta WiFiaren LEDa ñirñirka hasi arte.
	Labur eduki sakatuta LEDak pizteko edo itzaltzeko.
Reset	Aldi berean sakatu, hiru segundoz, WPS botoia eta piztekoa, ekipoa fabrikako balioetara itzulazteko.

## 1.4 LED adierazlea

Honela interpretatu behar dira LED adierazleak:



Sarearen adierazlea (LED gorria edo urdina)



WiFiaren adierazlea (LED urdina)



SMSaren adierazlea (LED urdina)



Bateriaren adierazlea (LED gorria edo urdina)

LEDaren deskribapena

Ikonoa	Ikonoaren bistaratzea
Sare-adierazlea	Urdina da LEDa Internetera konektatuta bada-go edo ñirñirka ari bada konexiorik ez duelako. Gorria da LEDa sarerik, zerbitzurik edo SIM txartelik ez badago.
WiFi adierazlea	Urdina da LEDa WiFi konexioa aktibo baldin badago.
SMS adierazlea	Urdina da LEDa mezu berri bat jasotzen badu edo ñirñirka ari bada sarrera-ontzia beteta da-goelako.
Bateria-adierazlea	Gorria da LEDa bateria agortzen ari baldin bada. Urdina da LEDa, eta poliki egiten du ñir-ñir, bateria erabiltzen ari bada. Urdina da LEDa, eta azkar egiten du ñir-ñir, bateria kargatzen ari bada. Urdina da LEDa bateria erabat kargatuta baldin badago.


### **Energia aurrezteko** modua:

- Ez badago WiFi konexiorako sarbiderik edo ez badago gailuarekiko interakziorik 30 segundo baino gehiagoan, automatikoki itzaliko dira LED adierazle guztiak, bateriaren LED adierazlea izan ezik.  
LEDak aktibatzeko, sakatu edozein botoi, edo USB kable bidez konektatu gailua PC batera, edo kargatu gailua.
- WiFi konexio baterako konexiorik ez badago hamar minutu igarota, automatikoki deskonektatuko da sarerako konexioa. WiFi konexioa gaitzeko, tekla bat sakatu behar da (edozein), edo Wi-Fi az baliatzen hasi erabiltzailerren bat.
- LinkZonera ez da inongo gailurik konektatzen 30 minutu baino gehiagoan, automatikoki itzaliko dira LED guztiak. Automatikoki desaktibatuko da WiFi konexioa.  
Sakatu edozein botoi WiFi konexioa aktibatzeko.

## 1.5 Gailua nola instalatu



**1. pausoa:** Ireki atzeko estalkia.

**Oharra:** Gomendatzen dizugu aldi berean jartzea bi erpuruak artekan, eta kanporantz lerratzea estalkia, irekitzeko.




**2. pausoa:** Sartu SIM eta SD txartelak dagozkien arteketan.

**OHAR GARRANTZITSUA!** Ez sartu microSD txartela artekan aldez aurretik babes metalikoa ireki ez baduzu. Jarraitu babesaren markei eta geziei hura irekitzeko (OPEN) eta ixteko (LOCK).






3. pausoa: Sartu bateria.



4. pausoa: Itxi atzeko estalkia.



## 1.6 Konexioa WiFi moduan

Atzeko estalkiaren atzealdeko pegatinan aurkituko dituzu Wi-Fiaren izena (SSID) eta pasahitza. Bateriaren azpiko etiketan ere aurkituko dituzu.

**1. pausoa:** Wi-Fiaren izena hautatzeko (SSID), erabili Wi-Fi txertatua duen gailuaren Wi-Fiaren kudeatzailea.

- Windows duten PCetan: Egin klik, eskuineko botoiaz, ataza-barrako **Conexiones de red inalámbricas**, eta hautatu: Ikusi erabilgarri dauden sareak.
- Aukeratu SSID erabilgarri dauden sareen zerrendan.
- Mac ordenagailuetan: Hautatu Preferencias del sistema -> Red -> Airport. Aukeratu «Avanzado» erabilgarri dauden sareen zerrendan SSID hautatzeko.
- iOS gailuetan: Ajustes -> Wi-Fi. Aukeratu SSID erabilgarri dauden sareen zerrendan.
- Android gailuetan: Ajustes -> Conexiones de red inalámbricas -> Ajustes Wi-Fi. Aukeratu SSID erabilgarri dauden sareen zerrendan.

**2. pausoa:** Sartu Wi-Fiaren pasahitza segurtasun-pasahitz bat eskatzen zaizunean.

## 2. Konfigurazio lasterra

---

Exekutatu Interneten nabigatzailea eta sartu <http://192.168.1.1> helbide-barran. Sartu pasahitza LinkZoneren konfigurazio-orrian saioari ekiteko.

Saio lehenetsia hasteko pasahitza hau da: **admin**

Ekin saioari, eta egin klik «Ajustes»-en oinarrizko doikuntzak konfiguratzeko.

### **WiFiaren doikuntzak:**

- SSID: ezarri gailu horren WiFiren izena.
- Segurtasuna: konfiguratu WiFi konexioaren segurtasun-modua.

## 3. Gailua nola kargatu

---

Gailua kargatzeko bi era daude.

### **Kargagailu bidezko karga:**

Konektatu USB kable bat gailuaren eta kargagailuaren buruaren artean, eta, kargari ekiteko, konektatu korronte-hargune batera.

Gailua itzalita dagoela, gehienez ere hiru ordu beharko ditu osorik kargatzeko.

### **USB bidezko karga:**

Honela ere kargatu daiteke gailua: USB kablearen bidez ordenagailu batera konektatuta.

Gailua itzalita dagoela, gehienez ere lau ordu beharko ditu osorik kargatzeko.

**Oharra:** Bateria babesteko, garaiz kargatu gailua bateria baxuaren LED adierazlea ñirñirka hastean.

# 4. Ziurtapena

---

## GEEHen onarpena

Bete egiten ditu gailu honek Gailu Elektrikoen eta Elektronikoei buruzko 2012/1/EE Direktibaren (GEEH Direktiba) oinarrizko baldintzak eta beste xedapen garrantzizko batzuk.



Hau adierazten du gailuaren sinbolo horrek: biltzegiei eraman behar direla bizitza baliagarria amaitzean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.

- Saltokietako edukiontziak. Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenerako kaltegarriak diren substantziarik ez zabaltzeko, eta haien osagaiak berrerabili egingo dira.

### **Europar Batasuneko herrialdeetan:**

Doakoa da biltzeta-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

### **Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:**

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Biltzeta-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

## RoHs onarpena

Bete egiten ditu gailu honek Ekipo Elektriko eta Elektronikoei buruzko 2011/65/EE Direktibak (RoHs Direktiba) zenbait substantzia arriskutsuren erabilera-murrizketak.

## Irrati-maiztasuneko uhinak

Gailu mugikorren modelo guztiek bat etorri behar dute nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin. Merkaturatu aurretik bete behar dute baldintza hori gailu mugikorrek. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere gailu mugikorren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien

## funtsezko betebeharra da. GAILU MUGIKOR HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Gailu mugikor hau irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irrati-uhinekiko (irrati-maiztasuneko eremu elektromagnetikoak) esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Jarraibide horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu, eta pertsona ororen adina eta osasun-egoera gorabehera segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte.

Irrati-uhinekiko esposizioaren arauen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren koefizientea edo SAR da. Gailu mugikorretarako, 2 W/kg muga dago.

SAR kalkulatzeko probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta gailuak potentzia-maila ziurtatu handienara transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. ICNIRPren arabera, hauek dira gailu-modelo honetarako SAR balio handienak:

Modelo honetarako eta erregistratutako kondizioetarako gehienezko SAR balioak.		
SAR, gailuak gorputza ukitzen duela	0.411 W/kg	WCDMA Banda VIII

Gailua erabiltzean, haren benetako SAR balioak adierazitako balio horiek baino askoz txikiagoak izaten dira. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, gailuaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da potentzia osoa behar ez denean. Gailuaren potentzia-irteera zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da SAR balioa.

Gailua gorputza ukitzen duela egindako SAR probetan, 15mm-ko tartea utzi da telefonoaren eta gorputzaren artean. Irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko jarraibideak betetzeko, gailua gorputzetik gutxienez tarte horretara eraman beharko litzateke. Zuk erabiltzen duzun osagarria baimendua ez bada, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta gailua gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi duenez, egungo informazio zientifikoaren arabera ez dago zertan neurri berezirik hartu gailu muela ziurtatzen ez denik beharrezkoa neurri bereziak hartzea telefono mugikorrek erabiltzeko garaian. Hau gomendatzen du erakunde horrek esposizio-maila jaisteko: gailuaren erabilera murrizteko, edo burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko gailua.

Informazio gehiago, hemen:

[www.alcatel-mobile.com](http://www.alcatel-mobile.com)

Eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazio gehiago, webgune honetan: <http://www.who.int/peh-emf>.

Antena du gailu honek. Zure komunikazioetan funtzionamendu-kalitate ahalik eta onena izateko, ez ukitu edo hondatu antena.

## Baimenak



Wi-Fi Allianceren ziurtatze-marka da.

# CE 0560

Ekipo honek 1999/5/EE direktibaren oinarritzko betebeharrak eta beste zenbait direktiba betetzen ditu. Zure gailuaren Adostasun Adierazpenaren kopia osoa gure webgunean eskuratu dezakezu: [www.alcatel-mobile.com](http://www.alcatel-mobile.com)

## 5. Gailuaren bermea

---

Zure gailua bermatuta dago bi (2) urterako<sup>(1)</sup>, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea.

Gailuak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, gailua eraman behar duzu.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, gailua (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da, edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako gailuek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen gailuak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

- 1) Gailua erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.
- 2) TCT Mobile Limitedek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.

<sup>(1)</sup> Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da gailuaren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote gailua erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure gailuak.

3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limitedek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egiteagatik.

4) TCT Mobile Limitedek baimendutakoak ez diren pertsona batzuek software- edo hardware-aldaketak edo -doikuntzak egin badituzte.

5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu gailua konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badie.

Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea. Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS  
Immeuble Le Capitole  
Parc des Fontaines  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
Frantzia

Alcatel-Lucenten marka erregistratua da ALCATEL, eta TCL Communication Ltd-en lizentziarekin erabiltzen du.

Eskubide guztiak, erreserbatuta © 2015-2017 TCL Communication Ltd.

Helbidea: Room 1910-12A, Tower 3, China HK City, 33 Canton Road, Tsimshatsui, Kowloon, Hong Kong.